

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak eta nekazaritza-erakundeek Landa Garapeneko Programa 2014-2010 sustatuko dute elkarrekin

Esparza kontseilariak akordio bat izenpetu du UAGN, EHNE, UCAN, Consebro, FORESNA, ADEMAN eta tokiko ekintzako lau taldeekin

Jueves, 15 de mayo de 2014

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilari José Javier Esparzak akordio bat izenpetu du gaur eta bertan Nafarroan 2014-2010 aldirako Landa Garapeneko Programa aplikatzeko oinarriak finkatzen dira



Izenpetzaileen taldeko argazkia.

Izenpetze-ekitaldian tartean dauden eragile guztiek parte hartu dute; UAGN, EHNE eta UCAN nekazaritza-erakundeek, Consebro enpresa-elkarteak, baso-sektoreko elkarte ADEMAN eta FORESNAk eta Tokiko lau Ekintza Taldeek: Cederna Garalur elkarteak, Teder elkarteak, Eder Partzuergoa eta Erdialdeko Garapen Partzuergoak.

Izenpetu dutenek defendatzen dute Estatuko esparruak ez duela inoiz autonomia erkidegoetako Landa Garapeneko Programak egiteko autonomia-maila mugatu behar, Nafarroaren kasuan handiena dena duen foru-araubidea tarteko, Estatuko Administrazio Orokorren eskumen-inbasioa saihestuz.

Gainera, beren borondatea agertu dute Landa Garapeneko Programa 2014-2010eko neurriak nekazaritzako gizarte-segurantzian kotizatzen duten nekazari profesionaleri lehentasunez eman ahal izan daitezen, eta xede nagusia Nafarroako landaguneetan enplegua sortzea eta mantentzea dutenak.

Akordioeko puntuen artean ere lehentasunez barneratuko diren neurri-mota jasotzen da. Hala, honako ekoizpen-inbertsio hauetarako bideratuko dira: nekazaritza eta abeltzaintzarako, nekazaritza-elikagaien industriarako, basokoetarako eta lehen transformaziotarako. Horrenbestez, lehenetsiko dira: tokiko ekoizpenei emandako laguntza, balio erantsiko handikoak, bereizitako kalitatezko irudiek babestutakoak eta kooperazio-integrazioa sustatzea.

Hurrengo Nafarroako Landa Garapen Programan inplikaturako eragile guztiek, alde batetik, nekazaritza-elikadurako sektorean berrikuntza

teknologikoa sustatzearen alde egiten dute, eta bestetik, ikerketa eta garapeneko emaitzen transferentzia optimizatzearen alde. Horretarako, lan-taldeak eratuko dira berrikuntzako proiektuak kudeatzeko, eta programa autonomikoaren nahiz Estatukoaren babesak izan beharko dute.

Berrikuntzen artean, gutxienez Programako LGENF funtsen % 30 erabiliko da honako honetarako: ingurumen eta klimari lotutako inbertsioetarako, basokoak barne, ingurumen-neurrietarako; nekazaritzari ekologikorako eta muga naturalak edo beste muga zehatz batzuk dituzten zonaldeei laguntzeko. Alde horretatik, nekazaritza eta basoko jardunbide egokien sarrera edo mantentzea behar adina babestu beharko da, eta haiek klima-aldaketa arintzen eta hari egokitzen lagunduko diote, honako hauekin osagarriak izan daitezkeen: ingurumen, pasaia eta beren ezaugarrien babes eta hobekuntzarekin, eta baita baliabide natural, lurzoru eta aniztasun genetikoaren babes eta hobekuntzarekin ere.

Mendiguneetan edota muga naturaletan dauden ustiapenen bideragarritasunari aukera emateko neurriak ere izango dira, neurri handi batean abeltzaintza estentsiboan aritzen direnak, eta une hauetan landako biztanleriari eusten ari zaiena Nafarroako lurraldeko zati handi batean, neurriak izango dira ere, landako aniztasuna eta oinarrizko azpiegiturak bultzatzeko, eta tokiko garapen parte-hartzaileari garrantzi berezia emango zaio. Bultzada horretarako, LGENF funtsekin batera EGEF eta FSEren funtsen laguntza ere izango da.

Landa Garapeneko Estatuko programa

Landa Garapeneko Estatuko Programari dagokionez, haren jarraipenaren alde egiten du Nafarroak, Estatuko esparru guztian horizontalki aplikatu beharreko jarduerak bakarrik zehaztu eta jaso beharko ditu, 2013ko uztaileko Sektoreko Konferentzian erabakitakoaren arabera. Haren funtsak ez dira inolaz ere erabiliko Ministerioaren aurrekontu-partidetan sor daitezkeen defizitak estaltzeko.

Gainera, Esparza Kontseilariak gaur nekazaritza-elikagaien eta basoko eragileekin izenpetutako akordioan gogora ekarri da Nafarroak egindako eskaria, hau da, landa-garapeneko programen arteko funtsak transferitzeko mekanismo automatiko eraginkor bat ezartzea, programa bakoitzerako emandako LGENF Funtsen konpromiso-ezaren arriskua dagoen kasurako. Kontua da 2007-2013 aldian izan zen egoera berriz ez dela errepikatu behar, aldi horretan funts batzuk galdu baitira autonomia erkidego batzuetako programen konpromiso ezagatik eta ezin izan dira funtsa horiek beste batzuetara eraman, Nafarroan bezala, beren programetan sar zitzakeenak eta kofinantzaketako bere zatia eman zezakeena. Onartzen den mekanismoak ekidin beharko du, autonomia erkidego hartzailearen funtsak ondoren galdu dituen autonomia erkidegoari itzultzea.

LGENF funtsen 136,5 milioi euro

Gogoratu behar da, iragan urtarrilaren 20an Madrilen egindako Nekazaritza eta Landa Garapeneko Konferentzia Sektorialean erabaki zela LGENF funtsak autonomia erkidegoei ematea 2014-2020 aldirako. Nafarroari 136,5 milioi euro egokitu zitzaizkion, 2007-2013 aurreko aldirako hasieran onartutakoa baino % 21,5 gehiago.